



# Bilbatuaganekoa (-a) etxebizitza

Aldaearak:

Ahozkoa: Bilbétugánekue / Lorentzona



43° 10' 49"

2° 35' 41"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*"... la casería principal titulada Bilbatuaganekoa... radicante en jurisdicción de la Anteglesia de Berriz, y su casa accesoría... que comprende con inclusión de la caseta horno, zaguan y una pequeña huerta trescientos veinte y tres estados, equivalentes a doce areas y veinte y nueve centiareas de cabida; y las que se componen de una vivienda, con piso bajo y principal, con sus correspondientes divisiones, cuadros y habitaciones..."*  
DJE 3/22 or. (1871)

Arestian aipatutako *Bilbatua* baserrien artean kokatzen da *Bilbatuaganekoa*. XVIII. mendeko Bizkaiko su-erroldetan aurkitzen ditugu baserri honen gaineko lehen aipuak: *Bilbatua de Suso*, *Vilbatua de Suso* eta *Bilbatua de Suso* (1704, 1745 eta 1796). *Bilbatua* (**Ikus Bilbatua**) baserriaren ondoan kokatuta dago, eta ez dakigu zer punturaino lotura duen baserri horrekin. Dena den, garai berekoak omen dira. XIX. mende hasieran dokumentatzen da lehen aldiz *Bilbatuaganekoa* (1817, BAHF, A268/13) aldaera, eta hortik aurrera, forma bera mantenduko du, lehen komentatutako salbuespenarekin, 1859ko izendegian *Bilbátuas* moduan agertzen baita beste baserri biekina batera. XX. mendean *Bilbatu Ganekua* (1905, BUA, 40) eta *Bilbatuaganekoa* (1967, BUA, CE) dira formarik erabilienak. Auzotarren artean, *Bilbétugánekue* eta *Lorentzona* dira formarik erabilienak.

Berriz inguruan horren zabalduta dagoen tipologia eraikitako baserria da, nahiz eta desberdintasun batzuk dituen. Honetan ondoko *Bilbatua* (**Ikus Bilbatua**) baserriaren antza du, biek baitute kortako atea fatxada nagusian. Hiru gorputzez osatuta dago, erdian atartea izanik. Harlangaitza erabili bazuten ere horma nagusiak egiteko eta harlandua kantaletan, egurrezko egitura oso bistakoa du lehenengo solairuan eta barne aldean, baita atartearen eskuma aldeko zutoinean ere, kontrastea eginaz beste aldeko harlanduekatz. Leihoetan antzeko desberdintasunak suma daitezke. Bakarra kontserbatzen du ertz guztiak harlanduzkoak dituen, korta gainekoa hain zuzen, eta kontrako aldean, oinarria duena beheko solairuan. Isuri biko teilatua du.

## toponimia

Alfontso Irigoien ikerlari ezagunaren ustez izen honetan dugun hitza Bizkaiko hiriburarekin lotu behar da. Badirudi Zallan ere errepikatzen den izen honetan aditza dugula baina esangura, "trama", iluna da. Bizkaian, behin baino gehiagotan esan dugun legez, ohikoa da etxe izenetan auzoa izena, jatorriz etxe baten izena zena, beste ezaugarri bereizgarri batez lagunduta agertzea. Kasu honetan Bilbatu auzuneko etxe hau goikoa da.